

BORTXAZKO LANEN ANTOLAKETA

Bortxazko lanak europar tradizio penalaren parte ziren, eta gainera XX. mendeko errejimene batzuek, nazismoak edota estalinismoak, modu masiboan erabili zituzten. Gerra zibilean ere, hasiera-hasieratik bortxazko lanak erabili zituzten agintari berriek presoek edota fusilatuen senitartekoen aurka, baina 1937ko maiatzean jaio zen zigor mota honen bizkarrezurra: Preso eta prisioneroei lan egiteko eskubidea emateko Dekretua, alegia. Honekin hasiera eman zion frankismoak Espainia garaikideko esklabotza sistemarik zabalenera, Europako garrantzitsuenetako bat.

Legalki, sistema honek bi modalitate nagusi izan zituen:

- Prisioneroak edota zigor penalik jaso ez zuten gazteak: ICCPren menpe, Langile Batailoi (BB.TT.) eta Langile Soldadu Diziiplina Batailoietan (BDST) antolatutik.
- Presoen lanak: 1938an Lanaren Bidez Zigorra Berrerosteko Sistema martxan jartzen da, eta horren bidez alde aurretik epaiturik eta kondenaturiko pertsonen lanak modu ezberdinetan antolatu ziren. Batez ere preso politikoekin abiatu ziren, baina XX. mendearen bukaera arte preso sozial askok ere enpresa batzuentzat modu ezberdinetan zapalduz eta eskubiderik gabe lan eginez murriztu dute haien zigorra.

Modalitate hauen artean lehena garrantzitsuagoa izan zen kopuruari begira, baina bigarrenak bizitza askoz luzeago izan du.



Presoen Uldidea. Behe Guadaluquir
Iturria: Conmemoración del Centenario de la Ley de Extranjería
Legado de GCI eta Asociación Memoria Histórica y Justicia de Andalucía



BDST 35, San Morag, Mallorca, 1942
Iturria: Archivo General Militar de Avila, B.L., C.2094, Cp.2, F.10, I.H.C.M., M. de Delmas

Testigantza

Capitán Aguilera

Prisionero gorriak, Santanderren harra-paturak. Aditu dut mendiko errepide bat 8 egunetan egin zutela. Lo egiteko aukera gutxi, ezta? Horrela jokatu behar da haiekin. Errepideak beharrezkoak izango ez bagenu, erreflea atera eta pare bat akabatzea gustatuko litzaidake.

1937ko udazkenean, Aguilera Kapitainak Virginia Cowles kazetariari esandakoa.


Iturria: P. Preston: "Los esclavos, las alcantarillas, y el capitán Aguilera...", Muñoz, J., Ledesma, J.L., y Rodrigo, J., (coord), *Culturas y políticas de la violencia. España siglo XX.*, Siete Mares.



Prisioneroak ubide lanetan
Iturria: Archivo General Militar de Avila, CG6, C.233, L.87, Cp. 10, I.H.C.M., M. de Delmas



Prisioneroak trenbide lanetan
Iturria: Archivo General Militar de Avila, CG6, C.233, L.87, Cp. 10, I.H.C.M., M. de Delmas



Dachaoko kontzentrazio eremuko langileak Alilacheko BMW-Flugmotoren herri-egintza lanetan
Iturria: Bildu del. Herriak, *Historiako Aroa* (Vitoria-Gaztea)

ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

1. Esklabotza sare zabala